

Eskerrak emanaz,  
launak begiak  
iasotzen ditu  
Aitarengana.

Berrogei egun  
gose zegon arren,  
otzan eta pakez,  
arrapazka gabe  
iaten du bitina.

Berriro begiak  
Aitagana iaso,  
zuti iekitzen da.

Aitaren gogara  
—au baitu ianari—  
besterik ez du  
gose ez egarri,  
Aingeru erdian,  
mendiak utzita,  
piztieri agur,  
giza-billa doa:  
Bi begiak lauso  
ta katsu daduzkan  
pekatari billa.

*N. Ormaetxea (Orixe)*

## UTSUNE

Gauz guziak banantzen dituzun utsune,  
zurekin aize otza tartez duzularik,  
jakille mutu dela lanbro urdiñarre,  
besteak mugaturik dituzu gugandik.

Denbora eta une, neurkaitz zure mende,  
galduak dituzula biotzen taupadak;  
sakon bezin ukakor, baiñan orbangabe  
kolko barruak illun gogo itsutuak,

ames lillurazkoak egaztadan iges,  
bizia alde-egiña, iñun eratzke,  
urrumaka surmurrez, biotzak naigabez.

Dana ezesten zaude, denboraz ta unez,  
amaiera gabeko bidez, damutzeke,  
norprekiko kanta otsaren bildurrez.

*Otsalar*